

Astekaria

BARREREN
elgoi



Etorkizuna, kilometro z egina

AZKUE

"Normala ez den Diesel bat"

Motor arin eta bizkorra. TDI 90 CV intercoolerrarekin.
Aparteko azelerazioa. Oso azkarra aurreratzen. Isila, bibrazioirik gabea.

ESCORT ATLANTA TURBO DIESEL 90 CV LAGUNDUTAKO DIREKZIOAREKIN



2.066.000 pta.

Zatoz bizkor! 4 unitate
geratzen zaizkigu



Promociones Inmobiliarias MENDARO



GOI MAILAKO KALITATEZKO
ETXEAK 12.000.000 pta.tik AURRERA

- 2 eta 3 logela
- Berogailu indibiduala
- Marmola atarietan
- Gineako zurak
- Iogailua garajeraino
- Antena parabolikoa

LOKAL KOMERTZIALAK - GARAJEAK - TRASTELEKUAK

INFORMAZIOA: 13 35 13 (ZARAUTZ)

Tel. Faxa: (94) 491 23 19 ALGORTA

Tel: 74 42 83 (**ELGOIBAR**)

CENTRONET

T I N D A T E G I A

Orain Elgoibarren

ERROSARIO KALEAN, LIZZY DENDAN

ZERBITZURIK ONENA PREZIO INTERESGARRIENETAN

- Alkandorak eta korbata 295 pta.
- Prakak, gonak eta blusak 595 pta.
- Soinekoak eta txaketak 795 pta.
- Berokiak, gabardinak eta txaketoiak . . . 1.095 pta.

ESKAINTZA BEREZIA: Mantak eta edredoak . . . 1.795 pta.

Bidebarrieta, 42 behea. 20600 EIBAR (Gipuzkoa) Tel. 943 20 42 63

elgoi**BARREN**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA:

Elgoibarko Izarra.

LAGUNTZAILEA:

Elgoibarko Udala.

ZUZENDARIA:

Ainhoa Lodoso.

ERREDAKZIO AHOLKULARITZA:

Andres Alberdi.

KAZETARIAK:

Ainhoa Lodoso,
Jasone Osoro.

PUBLIZITATEA:

Myriam Aldazabal.

MAKETATZAILEA:

Maite Rementeria.

ADMINISTRAZIOA:

Amaia Martin,
M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK:

Irati Agirreazaldegia, Xabier Ansola, Nekane Aranburu, Pello Arrieta, Juan Mari Elustondo, Ina Garagarza, Ane Goikoetxea, Amaia Gorostiza, Juanito Gorostiza, Maite Iriondo, Edu Iriondo, Alberto Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Javi León, Juan Mari Mendizabal, Milagros Oiarzabal, Benantzio Otaegi, Aitor Zabaleta, Julen Zabaleta, Deñe Zabalo, Lucia Zubiaurre.

BANAKETA ARDURADUNA:

Imanol Larrañaga

INPRIMATEGIA:

Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)

TIRADA: 3.800 ale

LEGE GORDAILUA: SS-
1.038/92

ISSN: 1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



• kutxa fundazioa
• fundación kutxa

ZENBAT BURU

HAINBAT ABURU



Gaztaroaren bekatua

Gazteekin zer egin ez dakien norabide gabeko gizarte honetan, badirudi gazteak gure begien aurrean ikusgai egiten direla arazoak sortzen dituztenean, edo kexa sozialen baten protagonista direnean.

Gure gazteria belaunaldi ugariena da. Hainbeste direnez ez dute tokirik ez unibertsitatean, ez lan munduan, ezta tarterik ere gure gizartean. Krisiaren belaunaldikoak dira. Beraien gurasoak eta jende heldu asko baino hobeto prestatuak dauden arren, lanik gabeko etorkizun ilun baten aurrean batzuek ikasten jarraitzen dute, beste batzuek tamalez, langabeziaren zerrendak handiagotzearen zorigaitza (harrokeria) izan dezakete.

Nahiz eta pertsona helduen bizimoduaren mailara iristeko adina izan, ezinezkoa zaie helmuga honetara heltzea; aitzitik, bai aurreratu zaiela denetik probatzeko garaia: zurrutean aritzea, drogatzea, indarkeria...

Sarritan gazteriaz ohartarazten gaituzte komunikabideek albiste txar bat argitzen digutenean, gazteei buruzko irudia arbuia eta gaitzesteko joera zabalduz.

Nagusiok nahikoa dugu edozein gertakizun okerren berri jasotzea gazteen "movida" delakoaren gaineko iritzi negatiboak botatzeko, jaun eta

jabe izango bagina bezala.

Ez da zuzena, are gutxiago egia, maiz entzun ohi dugun gazteei egokitzen zaien familia, etorkizun, adiskidetasun eta abarrekiko arduragabetasuna, ezta euren zoriontasuna musika gogor eta ulergaitza entzutean datzala bakarrik, edo zubi batetik zintzilik egotean.


Arazoa ez da gazteena bakarrik, gaur egun bizi ditugun problematikek (instituzioen krisia, ideologiaren gainbehera, politikoen porrota,...) gizarteko ispilu lohira garamatzate. Gure gazteak, ispiluan indarrez isladatzen diren protagonista zirikatzaileak baino ez dira.

Irtenbidea, beharbada, ez da hainbeste gazteria kontrolpean izatea, gaixorik dagoen gizarte hau sendatzea baizik, problemen erroa aztertuz eta gizaki izpiritualaren baloreak garatuz: solidaritatea, tolerantzia,...

Gaur eguneko gazteek, bizitzako etapa honek dakarren ezadostasuna adierazi nahi digute. Beste horrenbeste gertatzen zen orain dela 4.000 urte kaldear gizartean, garaiko papiro batean azaltzen zen legetxe: "gure gazteria beherakor eta axolagabea da. Gazteek beraien nagusien esanei ez diete jaramonik egiten...". Badirudi gauzak ez direla asko aldatu ordutik hona.

Nekane Aranburu

*Eusko Jaurlaritzako
Kultura Sailak, Foru
Aldundiak eta
Elgoibarko Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria*



- "Urasandiko kruzean kristoren atas-koa egoten da ia goizero. Ertzantza egoten denean ondo, baina ez dagoenean bozina jotzen hasten dira auto gidari guztiak. Etxean gaudenok ez daukagu zertan aguantatu horrelako eskandalorik!"

- IMHk Kilometroak egunean **hainbat gaztek izan zuen jarrera ezegokia** salatu nahi du: bedartza eta landareen hondatzeak, instalakuntzen apurketak, inguru zikintzeak, etab.

- Pilar ikastetxeko bi neska etorri dira hilaren 7an (astelehena) ikastetxeko bidean ikusi zutena salatzen. Euren esanetan **kale guztiak txerri eginda** zuden eta jendea lotan ere ikusi omen zuten kale bazterretan".


TXALOAK

- Irakurle batek deitu digu eta honako bi txalo hauek bota dizkigu: Bata, Kilometroetan **asto-lana** egin dutenentzat da. Eta bestea, **BARRENEk** argitaratu zuen ale bereziarentzat "lan handia egin dela ikusten baita".

- "IMHk Kilometroak-en antolakuntzako **Xabier Etxeberria eta beraiekin ibili zirenak** txalotu nahi ditu gure Institutua eta inguruak zaintzeagatik. Eta baita museoa bisitatu zuten guztiak ere".

- Emakume batek deitu digu **Kilometroak 96 jaia** txalotzeko. Herri osoa txalotu nahi du "halako elkartasunarekin horren jai ederra prestatzen laguntzeagatik".

- "Jon Suarez Barrutia elgoibartarra txalotu nahi dut argitaratu berri duen "Kaixo Mirna" liburuagatik".

ESKUTITZAK

Banoa, banixe, bai horixe

Elgoibarko ikastola bere sorreratik ahalegindu da dirulaguntzak sortzen eta lortzen. Mila buruhauste eta mila ekintza, nolabait eta nonbaitetik dirulaguntzak lortzeko. Tabernak, zozketak, jaialdiak, diru eskeak eta beste hainbat ekitaldi txanpon batzuk lortzeko eta beti bi helburu nagusirekin: ikastolako ikasleei zerbitzu ona eman eta kuota ahalik eta txikiena izan zezatela. Azken batean EUSKARA guztion aukera izan dedin. Horren alde lan egin zuen ia Herri osoak. Ia herri osoak diot, beti baitago patxikontraren bat.

Zalantzarik ez, uste dut, ikasle guztiak baliatuko zirela baldintza horietaz eta zu, Bixente, zu ere baliatuko zinela uste dut eta lehen erbia jan eta orain katua ordaindu nahi?

Pribatu-publikoa? Ikastola sorreran pribatua sortu zan eta hala izan ez balitz, gaur egun ez zen egongo ikastolarik, eginiko lan eta esanahi guztiarekin. Hori al da zuk eskatzen duzuna? Ez dut uste.

Publikoa? Berez hala izan behar luke baina gaurko zenbait politikoren euskararekiko jarrera ezagututa ez du ematen konfiantza gehiegirik hainbat urtetatako lana eta borroka horien eskuetan uzteko eta nahiago izan da gurasoen esku utzi. Gutxienez, guraso kolektibo bat arduratzen delako eta abar eta abar.

Bai, Bixente. Ikastolak egin dituen ekintza guztietan egingo zuen norbaiti gustatzen ez zaion zerbaite, danerako gaude eta, baina hala ere,

Herriak aurrera etara du. Gaur ere berdin, ez gara santuak eta egingo bada, akats eta guzti, egin egin behar da eta horretarako 2000 lagun inguru behar omen dira Kilometroak antolatzeko eta zatoz zu ere esku bat ezartzerara, eskertuko dugu eta. Ez zaitez harakinarengana joan, honen esanagatik berdin geldituko zaizu katua jan duzunaren zentzua. Hori ezabatzeko, zatoz Kilometroetara eta ikusiko duzu katua erbi bihurtu zaizula, eta, poztzen bazara gu ere poztuko gara.

Felix Etxeberria "Parapan"


Ikastolako sortzaileetarikoa bat eta gaur egun ere Kilometroak 96 lanean pozik ari dena.

OHARRA: Idatzi hau irailaren 30ean hartu genuen baina -Kilometroakeko ale bereziak ez zenez eskutitzen atalik-aurreko astean argitaratu ezinik oraingoan argitaratzen dugu.

Kilometroak egunero

Zapatua, irailak 28. Elgoibarko Ikastola parean gizatalde haundi bat lan egiteko prest. Batzuk, aspaldian etxean baztertutako lanabesak, eskularruak eta buzoa dotoredotore jantzita zeuden. Elgoibarren langabeziarik ez zegoela ematen zuen. Bakoitzak bere betebeharrak ondo egiteko talde burua izendatuta zeukan. 'Urliarekin zaudetenok, mesedez, hirugarren gunera; sandiarekin daudenak, faborez, Mintxeta aldera'. Bitartean burutazioak, begiradak. Kontxo! nola loditu den nirekin eskolan ibilitakoa. PNVkoa ala EAkoa izango da? Ez nuke jakingo baina piura hori izanda... Eta pelaje hori, HBkoa fijo, bestela kaka pastela. Holakoxea zen Elgoibar herriaren

HARRIGORRIGOIKOERROTABERRITARRAK



aurpegiaren zatitxo bat joan den zapatu eta domekan. Denok elkarrekin, denok geure burua gizabide erakutsi nahian, denok neurri batean euskararen alde edo, zurikeriaren alde? Horrenbeste urtetan bizirik egon den eta dagoen koipekeriarik gabeko hizkuntzari ez diezaiogun geure alde zuria erakutsi eta saia gaitetzen, egunero eta ez holako egunetan bakarrik, gero eta euskaldunagoak izaten, Elgoibar bezalako herri batek eskertuko du eta.

Juan Luis Mugerza Unanue

Jarraitu lanean

Lehenengoz, zorionak elgoibartarroi. Bai, benetan txalotzekoa da zuetariko askok egin duzuen lana urte honetan zehar. Askotan irakurri izan dut "Eskutitza" atal honetan iritziak, eta tamalgarrria den arren, askotan kritika hut-sak izan dira, eta batzuetan irainak izatera iritsi dira.

Baina ze demontre! Elgoibartar-rrak baditugu gauza onak ere, eta hemen bereziki aipatzekoak. Esate baterako, herri honetan prest gaude-la Kilometroak bezalako ekintza batean lan egiteko, musutruk gainera, eta ez bizpahiru lagun.

Igandean Kilometroetan lanean ezin egongo nintzela banekienez, (ni ere ez nixe, baina ez harakinak engainatzen nauelako, beste arazo batzuk ditudalako baizik), egun batzuk lehenago zirkuitua ikustera joan

nintzen eta aipagarria iruditu zitzaidan bertan egindako lan guztia. Elgoibarko zenbait txoko polit ikus-teko aukera ere badago eta, egia da, gure herria ez da askotan esan ohi den bezain zatarrak. Baditu oso toki politak.

Bukatzeo, zorionak denoi, eta jarraitu lanean aurrerantzean, gure herriak eskertuko du eta. Animo, gauza onak ere aipagarriak dira.

Teresa Arakistain

Elgoibartar, mendarotar eta lagundu digutenei:

Elgoibarko Ikastolak eskerrik beroenak eman nahi dizkie guztiei KILOMETROAK 96ko jaian eskainitako laguntzagatik, izan ere, erakutsitako interesa, gogoia eta adoreagatik izan ez balitz, ezinezkoa izango zatekeen eguraldiak eta beste oztupo batzuek jarritako zailtasun latzak gainditu eta etorritako bisitariei gutxieneko zerbitzua eskaini ahal izatea.

**ESKERRIK ASKO DENOI
Kilometroak 96**

ERREDAKZIOAREN OHARRA:
Kilometroak-en gainean eskutiz asko pilatu denez, gaurkotasuna ez galtzeko, denentzat egin dugu tokia gaurkoan.

Garate eta Orue: mila esker

Garate eta Oruek beraien alderdia komunikatu bat kaleratzera behartu dute, euren ohorearen defentsan. Beraien arabe-ra, Pello Mendizabalek emandako prentsaurrekoan narkotrafikantei babesa ematea leporatzen zitzaien, zehazki 380 kg. kokainaz atxilotua izan zen Mendaroko gizon hari.

Elgoibarrek drogomenpekotasunaren ondorio latzak jasaten jarraitzen du: HIESak jota 50 hildako, seropositibo ugari, desegindako familiak etab.

Duela 10 urte HIESa eta Elgoibarr buruz ETBk saio bat grabatu zuen. Saio honi buruzko iritzi pertsonaletatik at, grabaketa hartan zehar gertatutako bat kontatu nahi nuke.

Arduraduna zen ETBko kazetariak garai hartan alkate zen Lucio Beitiari arazoaz galdetu zionean, hona hemen honek emandako erantzun biribila: "Elgoibarren ez dago drogomenpekotasun arazorik". Halako erantzunak emandako lotsagatik, grabaketa haren arduradunak erantzun hau programan ez sartzea erabaki zuen.

1996ko irailaren 27an eta plenoan bildurik, Galindo (narkoterrorista, proxeneta etab.) pertsona ez atsegina izendatzearen aldeko mozioa aurkezten da. PNVk ezetza ematen du, gaur egun Garate eta Oruei esker. Galindo pertsonaia oso atsegina dugu bai, 50 gazte HIESak jota hil diren gure Elgoibar honetan.

Mila esker, Orue. Mila esker, Garate jauna. Zuen alderdia konturatuko da halakoren batean zer duen barruan.

Jorge Hernando Gaona

Richi
ileapaindegia



Astelenetik asteazkenera
arratsaldez klase praktikoak ematen
ditugu. Horregatik egun hauetan
PREZIO BEREZIAK ditugu:

Orraztu: 600 ■ Tintea:
1.500

Errosario, 6 - 1 - Tel. 74 30 11 - ELGOIBAR

KEMEN  **Belardenda**

**MEDIKU NATURISTA-AKUPUNTURA-PISUAREN
ZAINKETARAKO TERAPIA-MASAJEA ETA
REFLEXOTERAPIA**

San Bartolome 25. Tel: 74 40 31



MEKANOSA

Errosario 30
tel: 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ PLANOEN BIRREGILEAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

55.000 lagun euriari eta lokatzari aurre eginez

Goiz euritsuak eman zion hasiera Kilometroak 96 jaiari. Ekitaldi ofizialean Jaurlaritzako, Aldundiko, Ikastolen Federazioiko eta herriko agintarien hitzen ostean, Itziar Ajuriak, Ikastolako lehen irakasleak, zinta moztu zuen Kilometroak 96ri hasiera emanez. Ondoren, ibilbidea inauguratu zuten, agintariek 8 kilometroak egiteari ekin ziotelarik, martxa ari-

nean, gainera. Handik aurrera euri zaparradak izan baziren ere, tarteka ostarteak azaldu eta eguzkiak ere izan zuten kazkarrak berotzeko aukerarik. Eguerdi partera, gonbidatuei eskainitako luntxean, Belza Ikastolako lehendakariak testigua pasatu zion Pasaia-Lezoko ordezkariari, datorren urtean han ospatuko baita Kilometroak 97.



AZKUE



AZKUE



Inork ezingo du esan txoznetan, trafikoa antolatzen, informazioa ematen edo beste gauza askotan laguntzen aritu ziren elgoibartarrak eta mendarotarrak eta kanpotarrak gogor aritu ez zirenik. Antolatzailleen arabera, 2.400 lagun aritu ziren lanean. Ikastolan bertan, antolatzailerek ez zuten atsedenerako tarterik izan eta komunikabideetako kazetarien gunea ere, ikastolan bertan egokitu zen.





Zortzi kilometroko ibilbidea burutu zuten guztiek azpimarratu zuten zein paraje ederrak dituen gure herriak. Aldapa gogorrik ere bazuela entzun genuen. Oinezkoen egarrria asetzeko Santzon-Etxeberriko iturria ezin aproposago zegoen kokatua.

Zein inpresio eman dizu Elgoibarrek?



INAXIO OLIVERI

Elgoibar aspalditik ezagutzen nuen: IMH, Gestio Eskola, Ikastola orain dela 20 bat urtetik ezagutzen dut... Ibilbideari buelta eman diot eta oso ederra iruditu zait, gogor xamarra hala ere. Lan bikaina egin dutela uste dut.



ANTONIO CAMPOS

Zirkuitua osoa egin det eta ikaragarri polita iruditu zait. Kilometroetan balore asko jartzen dira age-rian baina herriak ezagutaraztearena beste bat da. Elgoibar bera ezagutzen nuen, Ikastola, Kultur Etxea eta abar..., baina inguruak ez.



JOSE JULIAN IRIZAR

Oso ona, pena izan da eguraldiak ez lagundu izana. Ibilbidea oso polita da baina eguraldi honekin ez da bere edertasuna osotasunean ikusi. Hala ere, jendearen erantzuna oso ona izan da. Lehenago ere ezagutzen nuen Elgoibar, bi urtez Eibarren lanean egona bainaiz.



ROMAN SUDUPE

Elgoibarrek daukan onena da Azkoitia 9 km-ra dagoela. Txantxak alde batera, zirkuitua oso ederra da. Neretzat ezagunak diaz San Roke aldea, Karakate eta Mintxeta ingurua, baita Azkarate ere. Oso hurbiletik bizi izan dudana herria da Elgoibar, azkoitiarra naiz eta gaztetan examinak egitera etortzen nintzen Elgoibarrerara.



JOSEBA EGIBAR

Elgoibar zoko batean dagoen herria da, baina hortik atera eta perspektiba berri batetik ikusten duzunean zein herri ederra den ohar-tzen zara. Azkenaldian etorri gabe nengoan baina 84eanizan nintzen Jaurlaitzako etxebizitzaren ordezkarri modura, Muguruza eta Karkizano etxeak erabat eraberritzea tokatu baizitzaigun. Eta Euskaldunarekin ere futbol zelaira jokatzera etorri-ta nago.



JOSEBA ALVAREZ


Jende asko dagoela ikusi dut, euskararen aldeko jendea. Euskara asko entzun dut eta sarritan Kilometroak bezalako ekintzei euskara gutxi entzuten dela leporatzen zaie. Herriari buruz, argi dago urbanismo basatiaren ondorioak jasan dituela, ibaiaren inguruan hazi dela. Ibilbidearen parte bat egin dut eta ikusi dudana asko gustatu zait, toki politak badaude.



- Tonbolan etengabe aritu ziren txartelak saltzen. Artikuluak dendarien opariak ziren eta azeptazio ezin hobea izan zuten.
- Txikitxoentzako hamaika entretenigarri jarri zituzten Mintxetan. Ikastolan Super Bat-ekoak egon ziren.
- Opel Vectra autoaren zozketan 20.987 zenbakia atera zen saritua. Hilabeteko epea dago saria jasotzeko. Ostantzean, 41.478 da erreserbakoa.
- Alkortako gunean, euripean eta lokatzez belarrietaraino, gazteak izan ziren nagusi. Bost axola hauei hotza, lokatza edo euria. Mintxetako eta San Rokeko guneak erabat lokatzuta geratu ziren eta arratsalde ingururako jendea Alkorta, Albitxuri eta Ikastolara hurreratu zen.

Lokatza alderik alde

Dudarik gabe, lokatza izan zen eguneko protagonista. Zapatak zikintzearekin konformatu ez eta, kroketak bezala “rebozatu-rebozatu” amaitu zuen batek baino gehiagok. Bestela, ikusi argazkiak. Euria zela eta, negozioa egitera etorri zenik ere bada. Dena dela, lokatzaren erruz, Mintxetako kirol ekitaldiak eta Trabukoren emanaldia bertan behera utzi behar izan ziren eta hango ekitaldiak Kiroldegira eramán.





Janak eta edanak sortutako beharrak asetzeko antolatzaileek mordoska bat txizaleku jarri zituzten. Asko izan ziren erabili zituztenak (argazkiak erakusten duenez, emakumeak gehienak), baina beste askok nahiago izan zuten ikastolako berdeguneak zeregin horretarako erabiltzea.



Antolatzaileen datuen arabera, 55.000 laguneko zifra da bisitari kopuruarena. Kilometroen bost guneetan ezezik, herriko kaleetan ere eta Madala inguan bereziki, pilatu zen jendea. Madalan txoznak jarri zituztenek sekulako "negozioa" egin zuten.



- Hainbeste jenderen artean, aurpegi ezagunak ere ikusi genituen. Goiko argazkian ETBko Joxe Felipe Auzmendi eta kuadrila, haurrez inguratuta telebistarako kamaraurrekoa egiten.

- BARREN astekaria present izan zen jaietan. 12 mila ale inguru banatu genituen kanpotik etorritako bisitarien artean.

- Goiz osoan zehar txintzarria jo eta jo aritu ziren Zantantzarrak. Gerria dobla-dobla eginda amaitu baino lehen, txozna batean geratu eta hauek ere hamaiketako egin zuten.

ASESORIA
GOIBAR

AHOLKULARITZA

- KONTABILITATEA
- AHOLKULARITZA FISKALA
- LAN AHOLKULARITZA
- ALLIANZ ERCOS ASEGURUA
- MULTINACIONAL ASEGURADORA ASEGURUA

San Bartolome 1. Tel:74 26 74/02 34 Fax:74 21 29 ELGOIBAR

Pedro Muguruza 5
Tel 74 08 06
20870 ELGOIBAR

■ Oleo ikastaroa

Egur Arte Tailerrak 30 orduko iraupena izango duen oleo ikastaroa antolatu du hilaren 16tik azaroaren 6ra bitartean. Klaseak arratsaldeko 3etatik 5etara eta 6etatik 8etara bitartean izango dira. Izena Egurren egoitzan eman daiteke (Ubitarte, lehen ikastola zaharra).

■ San Viator jaiak Pilar ikastetxean

Pilar ikastetxeak San Viator jaia ospatuko du bihar, hilak 12, Pilarreko amabirjinaren omenez. Eguerdian meza ospatuko dute eskolako patioan eta 12,30etan Itxaropena abesbatzak kontzertua emango du. Jarraian Guraso Batzordeak luntxa eskainiko die bertara hurreratzen diren guztiei. Datorren aste osoan zehar, jolasorduetan pilota partiduak jokatuko dira eta arratsaldeko 4,30etan futbol partiduak. San Viator egunean, berriz, goizeko 9,30etan bideoak eta jolasak antolatuko dira, goiz erdi aldera futbol eta pilota txapelketa eta ondoren sari banaketa.

■ Dantzaldiak Jubilatuetan eta nagusiei omenaldia

Datorren domekan, hilak 20, ohiko dantzaldiak hasiko dira Jubilatuen Etxean. Igandero, arratsaldeko 6etatik 9etara bitartean nahi duen guztiak dantza egiteko aukera izango du. Bestetik, datorren azaroaren 29an, ostirala, 80 urtetik gorako bikoteak eta urrezko eztaiak egiten dituztenak omenduko dituzte Jubilatuen Etxean. Egun horretarako lagunarteko bazkaria antolatu dute eta izena emateko goizeko 10,30etatik 12etara bitartean Jubilatuen Egoitzara zuzendu. Bazkarirako apuntatzerakoan 80 urtetik gorakoek NANA erakutsi beharko dute eta urrezko eztaiak betetzen dituztenek, berriz, Familia Liburua.



Errosario kaleko Amabirjinaren jaiak amaitzear daude. Azken ekitaldia, igandean, hilak 13, Errosario kaleko hildakoen eta jubilatuen aldeko meza izangoda. Meza ostean Amabirjinaren oinetan aureskua dantzatuko da. Astean zehar denetik egon da: haurrentzako jokoak, erraldoi eta buruhandiak, kaletarren afaria, suzkorroberak etab.

Komiki eta zine erotikoa

Kokoe Komiki Elkarteak erotismoaren gaiaren inguruan antolatu du IV. Komiki Jardunaldia. Bi urtetik behin egiten duten jardunaldiotan, komikia ezezki zinea ere ikusteko aukera izango da. Erotismoa da gai nagusia; duela bi urte beldurrezko generoa izan zen. Gaur, hilak 11, arratsaldeko 7,30etan Kultur Etxeko erakusgelan, sei komikigileren lan originalek osatzen duten erakusketa inauguratuko da. Ekitaldi berezia izango da, Kokoek ohi dutenez, sorpresa bat prestatu baitute. Komiki erotikoak Altuna arjentinarrenak, Nazario, Payá, Tobalina eta Vazquez espainiarrenak eta Thorne amerikarrenak dira. Erakusketaren lagungarri modura, hiru filme

erotiko emango dira Herriko Antzokian. Lehenengo emanaldia, gaur, gaueko 22,30etako izango da: "El hombre deseado". Hurrengo ostiralean, hilak 18, saio bikoitze egongo da: "G, el punto caliente" eta "El hombre que mira". Sarreraren zenbatekoa 200 pta.koa da.



Inaxio Oliverik Gestio Eskolako ikasturte hasieran parte hartu zuen

Joan den astean Gestio Eskolan 96/97 ikasturteari hasiera emateko ekitaldia antolatu zen. Inaxio Oliveri Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburua aurkezpen ekitaldian izan zen eskolako Patronatuko Iñaki Arriola presidentea, Guillermo Garate alkatea eta Jose Mari Ulazia eskolako zuzendariarekin batera. Gizarte batek aurrera egin dezan "giza-hezkuntzaren garrantzia" azpimarratu zuen sailburuak, eta Gestio Eskola goraiatu zuen, "Deba Beheak izan duen bizitasuna

berreskuratzeko tresna aproposa" dela adieraziz. "Gaur egun ez du balio ikasketak egin eta lanean hasiteak, gure gizartean berehala gertatzen baitira zaharrak ezagutzak; hortaz, kalitatearen balioa kontuan izan behar dugu, egiten duguna ondo eginez".

Gestio Eskolaren laugarren ikasturtea da honakoa. 1993an jarri zuten martxan hainbat erakundek eta patronatu bat eratu zen zentroa zuzentzeko. Gestio Eskola SUP T.G. frantses sareko kide da.



■ Txiskolan elgoibartarrik ez

ETBko lehen katetik ematen duten Txiskolako saioaren arduraduna den Kike Amunarriz harremanetan jarri da BARRENein elgoibartarrekin zer gertatzen den galdetzeko. Ea "hain herri tristea eta iluna" den. Izan ere, Elgoibarko inguruetako herri guztietatik joan dira Txiskolara baina gure herritik ez da inor animatu parte hartzera. Zergatik? Norbait animatzeko gonbitea luzatzeko eskatu digu eta guk hala egiten dugu. Norbaitek parte hartu nahi badu, hirukotea osatu eta deitu 21 75 43 zenbakira.

■ Bandaren kontzertua Herriko Antzokian

Domekan, hilak 13, Plaza Handiko kontzertuen osteko lehen emanaldia eskainiko du Udal Musika Bandak Herriko Antzokian. Eguerdiko 12,30etan eta Jose Antonio Osorok zuzenduta, obra hauek joko dituzte: "Zodiak" (Scheffer), "Danzas fantásticas" (Turina), "The exodus song" (E. Gold), "Sinfonía incompleta" (F. Schubert) eta "Marcha militar nº 1" (Schubert). Hurrengo kontzertua Santa Zeziliaren omenez izango da, azaroaren 24an hain zuzen.

■ Sigma eta Kilometroak

Elgoibarko Sigmako langabetuak "Sigma Book" makina saltzen aritu ziren zirkuituan zehar. Makina 8.000 pta.n zegoen salgai, merkatuan baino bi mila pta. merkeago. Sigmako langabetuen eta antolatzaileen arteko akordio bati esker saldutako makina bakoitzagatik 1.000 pta. Kilometroentzat izango da. Ekintza honen helburua langabetuei eta euskarari laguntza ematea izan da.

■ Koldo Lizarralderen elkarlaneko liburua kalean

Joan den astelehenean Koldo Lizarraldek bere azken liburua aurkeztu zuen Donostian. Aipatu liburuak "Oficios tradicionales" izenburua darama eta aintzinako 25 lanbide biltzen ditu, desagertuak batzuk eta desagertzear besteak. Esate baterako, "izaiñek", esne gehiegi zuten emakumei esnea zurrupatzen zien bularretatik. Pertsona hauek gizon zein emakueak ziren eta gaizki ikusiak zeuden. Liburua Koldo Lizarralde, Carmelo Urdangarin eta Jose Maria Izeagak elkarlanean idatzi dute eta Foru Aldundiko Ekonomia eta Turismo sailak argitaratu du.

■ AEK egunerako autobusa

Datorren domekan, hilak 20, AEK Eguna ospatuko da Donapaleun "Euskarak gure baitan dauka bere geroa" lelopean. Elgoibarko AEK euskaltegiak autobusa antolatu du bertara joateko. Izena emateko Oiz-Mendi eta Karobi tabernetara zuzendu edo AEKren Plaza Txikiko egoitzatik pasatu.

■ Zazpikiren bilera

Larunbatean, hilak 12, Zazpiki irratia bilera egingo du goizeko 11,30etan Zazpikiren lokalean. Irratizale guztiei dei egin nahi diete bilerara ager daitezten.

Alfonso Guilló:

"Elkartasuna igorri nahi nieke egungo ikasleei"

Pasa dira kilometroak, nahiz eta oraindik ere batzuek domekako ajeak kendu gabe izango dituzten. Elgoibarren ospatu da aurtengo edizioa. Zergatik? San Bartolome ikastolak aurrera begira egin behar dituen aldaketen lagungarri. Aste honetan Alfonso Guilló ekarri dugu gure artera. 43 urte dituen elgoibartar

honek magisteritza ikasi zuen eta irakaskuntzan egin zituen lehen urratsak irakasle modura. Gero, Euskal Telebistarako bikoizketa lanak egin zituen, testu egokitzailerik eta bikoizketa zuzendari ere izan zelarik. Duela 11 urte, 1985ean hain justu, San Bartolome ikastolako zuzendari izendatu zuten.

- Geratzen al zaizu kilometroetako resakarrik?


- Bai, oraindik geratzen da. Zalantzak izaten ditut zein egunetan bizi garen eta igandeko lotura piskat geratzen daa.

- Zer suposatu du kilometroak Elgoibarren antolatzeak?

- Lehenengoz, Elgoibarren horrelako jai bat ospatu daitekeela frogatzea. Bigarrenik, eta oso inportantea dena, lankidetzatza. Eta hirugarrenik, Elgoibar ezagutaraztea.

- Zergatik Elgoibarren?

- Azkeneko urteotan ikastola egokitu behar izan dugu oinarritzko baldintza batzuetara eta horrek gastu handia suposatu du: kale-fazioa, DBHrako laborategiak ekipatzea, plastika gelak... Hainbat inbertsio egin behar ditugu informatikan... Eta kilometroak ekartzen duen diruaren bitartez osatuko genuke eskolak behar duen ekipamendua, gure ikasleei prestakuntza egokiagoa eman ahal izateko. Lortu dugu euskararen normalizazioa, lortu dugu hainbat eta hainbat ikaslek euskaraz ikasi eta euren lanbidea euskaraz garatzea, hurrengo pausoa euskara kualitatiboki lantzea da eta



"Hezkuntzan euskara behikuloa da eta gero eta aberatsagoa egin behar dugu"

bide luzea dago.

- Zein dira, zehazki, ikastolaren hezkuntza proiektuaren zutabe nagusiak?

- Lehen helburua Euskal Herria erreferentzia modura jartzea da. Lehen-go Euskal Herria, gaur egungoa eta etorkizuneko. Horren barruan zenbait zutabe daude. Batetik, ikaslea. Jarrera jakinguratsua, ikertzaile eta sortzaile izan dezan hezitzen dugu, jarraipen hurbila.

- Prestakuntzari dagokionean?

- Beste zutabe garrantzitsu bat da. Ikasle-

ari prestakuntzarik onena eman behar zaio, bere lanbidea euskaraz garatzeko moduko prestakuntza integrala eta eleanitza. Baloreei dagokienean, etengabeko hobekuntza pertsonala lantzen da. Autoestimatik eta autokritikatik abiatuta, lanerako ohitura eta gogoeta metodoak erabiliz. Taldeka, berriz, errespetua, elkartasuna eta erantzukizuna auzolanaren bidez.

- Lehenxeago aipatu duzu euskararen kalitatea.

- Bai. Euskara hezkuntzan behikuloa da eta gero eta aberatsagoa egin

behar dugu. Horretarako bitarteko batzuk daude eta nagusiena irakasleagoa da. Horregatik, irakasleagoaren prestakuntza beharrezkoa da, garai berrietara egokitu beharra dago.

- Horrenbeste aldatu al da irakaskuntza?

- Aldatu egin da, bai. Esaterako, orain urte batzuk ez zegoen egungo tailerrik, ez aukerarik... Horrek ez du esan nahi gaur egungo irakaskuntza aberatsagoa denik, edo ikasleak prestatuagoak daudenik... Garaiak aldatu egiten dira, eta horrekin batera irakaskuntza.

- Zein alde dago orain 20 urte eta egungo ikastolaren artean?

- Sortu zenean Ikastola lore bat zen desertuan. Gaur egun, helburua nolabait lortu da. Euskara normalizatuta dago.

- Zein balore igorri nahi zenieke ikasleei?

- Elkartasuna, argi eta garbi.

- Berriz jaioko bazina, zer izan nahi zenuke Alfonso?

- Musika munduan ibili nahi nuke, baina bizitza oraindik luzea da eta gauzatuko ditugu gure ametsak.

BARREN

L.H. eta D.B.H.ko IKASLEEKIN EGINDAKO 27. GEHIGARRIA




Joan den igandean ospatu zen Kilometroak 96 Elgoibarren. Horren inguruan urtean zehar hainbat eta hainbat ekintza izan dira. Eta horien artean diskoaren grabaketa. "Banoa, banixe, euskaraz bai horixe!" izan da leloa. Mari Kruz Intxaustik egin zuen abestiaren letra eta Alberto Iriondok musika. Elkar disketxean grabatu zuten eta argazkian ikus ditzakegu grabaketan parte hartu zuten Ikastolako haurrak: Ainara De Pablo, Guruzne Urkidi, Miren Bastida, Joana Astigarraga, Jokin Altuna, Haritz Arrieta, Andoni Etxabe eta Aitor Arrieta. Zuzendaria, berriz, Regina Arrieta.

Tristeia

Goizeko zazpiak aldera, bi langilek topo egiten dute lanerako bidean:

- Kaixo, egunon. Zer temperatura ote dugu gaur?
- Zero gradu edo...
- Zein ondo, ez hotz eta ez bero.



Jakitunen eskutik

Eskolaz kanpoko orduekin, zer?

Ikasturtea hasi da. Aurrera doa. Irailak paso egin dio urriari. Eta eskoletako ikasleak buru-belarri sartu dira kurtsoan. Hemendik aurrera liburu artean burua makurtu eta azterketetan ahalik eta notarik onena ateratzea izango da erronka. Euren erronka... ala gurasoena? Gizartearena agian? Batek daki! Baina zurrumbilo honetan bada zerbait nahi eta nahi ez gure artera ekarri nahi izan duguna: partikularrak, edo eskola orduetatik kanpoko ekintzak. Gustu guztietako iritziak. Aldekoak, aurkakoak... Liburu batekin egin dugu topo: "Como una novela", Daniel Pennac-ek idatzia. Eta bertan bada kapitulu bat benetan adierazgarria dena. Irakurri eta norberak atera ditzala ondorioak:

"Institutuan bitartean (hala esaten zuten euren belaunaldi-ko tebeo belgiarrek kursibaz idatzita), gurasoak honela mintzatzen ziren:

- Badakizu, nire semea..., nire alaba..., liburuak...

Hizkuntza irakasleak ulertu du: ikasle honi "ez zaio irakurtzea gustatzen".

- Eta arraroena zera da, umetan asko irakurtzen zuela..., liburuak jan egiten zituen, ez al da egia, maitea? Liburuak jan egiten zituela esan daiteke.

Maiteak bere iritzia ematen du: bai, liburuak jan egiten zituen.

- Hori bai, telebista ikustea guztiz debekatuta dauka!

(Beste bertsio posible bat: telebista guztiz debekatzea. Arazoa konpontzea arazoa sortzen duena ezabatuz. Truko pedagogiko ezaguna!).

- Egia da, telebistatik ez ikasturteak dirauen bitartean. Hasiera-hasieratik izan dugu printzipio hori, eta sekula ez dugu atzera bota izan!

Telebistatik ez, baina bostetatik seietara pianoa, seietatik zazpietara kitarra, asteazkenetan dantza, judoa, tenisa, larunbatetan esgrima, elurra hasi bezain pronto fondoko eskia, lehenengo eguzki izpiarekin bela ikastaroa, egun euritsuetan buztina, Ingalaterrara bidaiak, gimnasia erritmikoa...

Ez dago aukerarik haurrak bere buruarekin bakarrik egoteko gutxienez 15 minutuko tarteak izan dezan.

Ametsik ez!

Behera asperraldia!

Asperraldi polita...

Asperraldi luzea....

Edozein arlotan sormena eragingo duen asperraldia...

- Sekula ez dadin aspertu saiatzen gara.

(Gixajoa...)

- Nola esango nizuke? Ahalik eta heziketarik konpletue-
na izan dezan saiatzen gara.

- Eraginkorra batez ere maitea, eraginkorra.

- Bestela, ez ginateke hemen egongo.

- Zorionez, matematikan ez ditu nota txarrak ateratzen.

- Baina hizkuntzan...

Hori da, hori, gure harrotasunari ezartzen diogun esfortu pobrea, tristea, patetikoa.... Calaise-eko burgesak izango bagina bezala baina hemengoak izanik, gure frakasoaren klabeak aurretik, hizkuntza irakaslearengana... Hizkuntza irakasleak bitartean entzun egiten du, bai-bai esaten eta behingoz, irakasle bizitzan behingoz, ilusio txiki bat izan nahi luke... baina ez:

- Frantsesean suspenditzea arrazoi nahikoa izan al daite-
ke gure semeak kurtsoa errepikatzeke?

Zer iritzi daukazu *partikularrei*..... buruz?



Nire aitaren, ikastolan egindako lanak erreforzarreko klaseak dira. Batzuetan oso beharrezkoak.

NAGORE ESCUDERO. 13 urte



Ez zait gustatzen partikularra. Ez zait gustatzen joatea. Herrian partikular asko dago.

JANIRE AZPIAZU. 7 urte.



Onak dira, ez dakizuna ikasteko. Baina zero ez daukazu denborarik jolasteko eta tarteak egiteko.


CRISTINA LOPEZ. 10 urte



Aocle Eci Itxvq
5 wtvg

Galde debalde

- 1- Zein mezu jarriko zenioke uso bati?
- 2- Zein barraka duzu gustukoen?
- 3- Zein animalia izan nahi zenuke?
- 4- Garraio bat?
- 5- Ametsetako printzea?
- 6- Dirua egiteko era erraz bat?
- 7- Zein kolorez pintatuko zenuke zerua?
- 8- Zer ez zaizu gustatzen egitea?



Etlem Vli ctc
10 wtvg

1. Etxe bat, jendia, txakurrak... marraztuko nituzke.
2. Dragoia, tunelian sartzen zera, keia botatzen dau eta amaitzerakuan globua ematen dizue.
3. Lehoia, indarra dakalako.
4. Autobusa.
5. Ez dakat, zaila da topatzia.
6. Lana eitxia.
7. Urdina lagako nuke.
8. Amak bialtzen diazen lanak.

1. Jean Claude Van Dame-ri esango nioke nire aktorerik gustukoena dela eta ezagutu nahi dudala.
2. Autotxoak.
3. Tigrea, polita dalako.
4. Motorra.
5. Maria, Extremadurako neskalaguna.
6. Motorrarekin konpetizioetan ibiltzia.
7. Urdina lagako nuke.
8. Etxian geratzeko gogua dakatenian amakin kalera urtezia pasiaran.

Zer da... *zinea*.....?

OLATZ TXURDUKA 7 wtvg



"Jendeak pelikulak entzuteko eta ikusteko telebista handi bat."

EIDER AZKUNAGA 11 wtvg



"Zinea larunbatetan lagunekin ondo pasatzeko lekua da. Batez ere beldurrezko pelikulekin."

EIDER PEREZ 8 wtvg



"Pelikulak ikusteko toki haundi edo txiki bat. Elgoibarkoa normala da eta zinean aulkiak eta abar daude."

AINADA RODRIGUEZ 8 wtvg



"Zinea oso polita da eta nik ez dakit nola egiten den. Pelikulak oso politak dira."

GARBINE OSTOLAZA 11 wtvg



"Pelikulak ikusteko toki ilun bat. Lagunekin joaten bazara, hobeto pasatzen duzu bakarrik baino."

ASIER LOPEZ 9 wtvg




"Zinean pelikulak botatzen dituzte eta luzeak izaten dira."

Denborapasak: ezetz asmatu!

1. Nor da kirolari hau?



3. Zein da bide egokia?



2. Zer galdetu diegu beraiek erantzun hau emateko?



IZASKUN ESNAOLA
7 urte

Astian zihar esnia bi gailetekin, Marbu Dorada. Ez naiz gosiakin esnatzen baina zeozer jan bihar danez... Gustura jaten dot errekreuan txorizo bokadiloa. Edo zapatuetan aitxitxak ekartzen dian boilua.

GORKA PANIZO
12 urte

Zerealak, "Smacks de Kellog's", esniakin. Taza haundi bat. Normalian ez dot gose haundixa eukitzen baina errekreuan amak ipintzen diana jaten dot, bost edo sei gaileta. Beti gosaltzen dot berdina, zerealak dialako gehi-xen gustatzen jatana.



4. Asmakizunak

- Kobazulo batean hezetasuna nagusi, hesi batez inguraturik bizi da herensugea.
Zer da?.....
- Kutxa barruko damak soineko zuria, eta bihotz gorria.
Zer da?.....
- Saguaren neurrikoa eta etxea zaintzen lehoia bezalako.
Zer da?.....

ERANTZUNAK: 1.- Miguel Indurain txirrindularia, 2.- Zer gosaltzen duzue eta 4.- Mingaina, arrauliza eta gilitza.

Iosu Guede

Iosu
bitxidendakoa



● **Bizitzak eman dizun bitxirik handiena?**

▶ Bitxidenda irekitzeko aukera.

● **Nori sartuko zenioke gustura ezkontza eraztuna?** ▶ Ezkondu ez baina Radio Euskadiko Almudena Cacho ezagutu nahi nuke.

● **Elegantziak bitxi gutxi behar omen ditu.**

▶ Bai, baina bitxi eder batek beti laguntzen du.

● **Urrea ala zilarra nahiago?** ▶ Urrea. Lanerako ere askoz hobea da.

● **Erloju digitala ala orratzarekin?** ▶ Biak ditut baina gehiago erabiltzen dut orratzduna, sinpleak gustatzen zaizkit.

● **Zein momentutan geratuko zenuke denbora?** ▶ Oraindik 29 urte bakarrik ditut, baina beharbada 40 urte adin ona da geratzeko.

● **Eta zeinetan pasako zenuke oso bizkor?**

▶ Oporretan, asko aspertzen naiz eta.

● **Denbora urrea al da?**

▶ Ez dut uste denbora hain garrantzitsua denik.

● **Dirua akziotan ala urretan inbertituko zenuke?**

▶ Urretan edo brillantetan, hobe.

● **Zein da zuretzat urrezko arraultzak jartzen dituen oiloa?**

▶ Gaur egun 15eko kiniela asmatzea.

● **Emakumezkoak beharrezko duen bitxia?** ▶ Eraztuna.

● **Eta gizonezkoak?** ▶ Zigilu-eraztuna.

● **Zein luxu izan nahi zenuke?** ▶ Munduari bira emateko aukera.

● **Zein musika talderi emango zenioke "urrezko diskoa"?**

▶ Inori ere ez. Ez zait musika gustatzen.

● **Zein pertsonaiak du urrezko mingaina?** ▶ Jesulin De Ubriquek.

● **Baloreak diamanteak balira, zein pulituko zenuke disdira atara arte?** ▶ Solidaritatea inguruan ditugunekiko.

● **Zein kiroleetan nahi zenuke irabazi urrezko domina?**

▶ Atletismoan.

● **Zein mozerro aukeratulo zenuke jai baterako?** ▶ Banpiroarena.

● **Etxeko lanetatik gustukoena duzuna?** ▶ Aspiradorea pasatzea.


● **Zertarako nahi zenuke emakume izatea?**

▶ Ez dut uste emakume ala gizonezko izatea desberdina denik.

Udazkena

Udazkena da orain
pozteko garaia
hostoak jausten dira
aldatuz paisaia
horiska ikusten dut
Morkaiko mendia
leihotan firin-faran
ugari haizia

Animaliak ere
zuloak prestatzen
negua hurbil dago
beroa pasa zen
toki epeletara
dira abiatzen
gaur goizean ikusi
ditut biajatzten



AITOR ARRIETA

B
E
R
R
I
E
R
R
E
T
O
T
A
N

AZALEA

Estetika eta edergintza

MARI KARMEN BERECIARTUA

Estetizista · Bisajista · Masajista

Trenbide kalea, 3, behea (estazio parean) ELGOIBAR - Tel. 74 03 10

Neguari aurre egiozu!

- GORPUTZ eta AURPEGIRAKO tratamenduetan
merkatuko azken berrikuntzak zure esku.

- DEPILAZIO elektrikoa eta argizariarekin.


UDA BERRI
ELGOIBAR

Laster hasiko dira berriz San Migel errekastoko obrak

Orain dela hilabete batzuk argitaratu genuen bezala, hasi berriak ziren San Migel errekastoen obrak geratu egin ziren. Arrazoia, “Huarte” enpresak zituen arazo ekonomikoak. Badirudi enpresa nafarrak ez duela baliabide ekonomikorik obrak aurrera eramateko. Hori dela eta, Huarte eta Gipuzkoako Foru Aldundia San Migel errekastoen obrak beste enpresaren baten esku uztea ari dira eztabaidatzen.

350 milioko aurrekontua

Obrak egiteko epea amaitzen denean, Aldundiak Huarteren gain laga du errekastoko obrak beste enpresa baten esku uzteko ardura. Dagoeneko hiru izen luzatu ditu Huartek. Izen berrien zerrendan lekua izan dezakete obrak egiteko lehiaketan parte hartu zuten enpresek ere. Halere, horrek ez du suposatuko hasierako aurrekontuak gora egingo duenik. Izan ere, edozein enpresa izanik ere, 350 milioiko aurrekontua izango du eta aurrez



Orain dela hiru hilabete inguru hasitako obrak bertan behera geratu ziren.

zehaztutako kondizioak bete behar-ko ditu. Horrela bada, urtea amaitu aurretik nahi dira obrak berriz ere martxan jartzea ostantzean, Aldundiak proiektu horretarako zuzenduta daukan dirua beste zerbaiterako erabil dezake eta.

Errekastoen ibilbide berria

San Migel errekastoko obran

bidez ibilbidea zabaldu nahi da 1988. urtean izan ziren uholdeak berriz ere ez daitezzen gertatu. Proiektu honi dagokionean, Metala baserri inguruan dekantazio balsa bat eraikiko da eta ondoren, San Migeleko errepedetik Txankakua zubiraino ibilbide berria egingo zaio errekastuari.

Uztailaren 30ean plenoan onartu ziren brigadarako bi langile kontratatze-ko oinarriak abuztuko buletinean argitaratu eta irailaren hasieran amaitu zen izena emateko epea. HBren hitzetan, “boletinean azaltzea ez da nahikoa. Udalari dagokio deialdi publikoaren berri komunikabideetan ematea. Bestela, jende asko ez da enteratzen. Kontuan izan behar da, gainera, abuztua egon dela tartean”. Komisionan epea beste 15 egunez luzatzea erabaki zen. Halere, Peloren esanetan, “Gobernu Batzordean atzera bota zuten”. Honez gain, aipatu lanpostuen oinarrietan intsumituei inhabilitazioa aplikatuko ez

zitzaiela erabaki zen. Hau da, intsumituek ere aukera zutela aurkezteko. Peloren ustez, “askok ez dute honen berri izan eta horregatik ez dute izenik eman”.

Gillermo Garatek gai honen inguruan esan duenez, “Gobernu Batzordeak epea ez luzatzea erabaki zuen legeak esan bezala buletinean argitaratu eta 20 eguneko denbora utzi baitzen izena emateko”. Alkateak gaineratu duenez, “uztailaren 28an D.V.-ko Elgoibarko kartan argiataratu zen hurrengo eguneko plenoan bi lanpostu horien oinarriak onartuko direla eta abuztuaren 7an, berriz, plazen eta oinarrien berri eman zen egunkari horre-

tan. Deiaren ‘Guia de formación y empleo’ sailean ere eman zen lanpostuen eta epearen berri irailaren 8an”. Garateren ustez nahikoa aldiz eman da honen berri eta, “oporretara joan gabe interesa izan, zai egon eta izena eman dutenez errespetu falta litzake orain epea luzatzea”.

Udalaren manifestuaren kontra

Herri Batasunako kideek Udalaren manifestua “formalki ez dela Udalarena” adierazi dute prentsa ohar batean, “manifestua ez baitzen inongo pleno edo batzordetan eztabaidatu”. HBkoek “elkarrizketaz hitz egiten dutenak” salatzen dituzte, “gero ez baitira

gurekin mintzatzeko gai. Alkateak berak hartu zuen HBri ez deitzeko erabakiaren ardura, gainontzeko alderdien onespenerekin”. Era berean, pare bat aldiz Garate, Kultura Batzordean erabakitakoaren aurka azaldu dela salatu dute. “Jaietan ikurriña eguerdiko leian jartzea erabaki arren, Garatek ez zuen horrelakorik egin eta Gaztetxearen kontuan ere aurreakordioari muzin egin zion, inolako alternatibarik eskaini gabe”. HBk paktoko alderdien jokabidea kritikatzin amaitzen du, “demokrazia eta elkarrizketaz hitz egiten dutenen praktika nolakoa den argi uzten dute jokabide hauek”.

Zelaia Hotela (I)

- Altzolan, Deba ibaiaren ezker aldean eta zubiaren ondoan aurkitzen da. Eraiki zenean aurreko mendean dorretxea izan zena hotel bihurtu zen. Gaur egun hormak mantentzen dira baina etxebizitzak izateko egokitu dute.
- Lauki erako oinplanoa eta lau isurkitako teilatua duen eraikina da. Harlangaitzez eraikia dago eta gero zarpeatua eta zuritua egon zen, eskantzuak eta zenbait baogune harlanduz eginez.
- Sotoa, beheko, lehenengo eta bigarren solairuak ditu.
- Hotelak honako ezaugarriak zituen: fatxada nagusiko beheko solairuko albo batean sarrera dinteldua eta harlanduz inguratua eta honen ezkerrean beste sarrera txikiago bat zegoen.
- Lehenengo solairuan hiru leiho handi daude eskubandekin eta bigarrenean bost leiho zeuden. Hauetariko hiruk beheko ardatza jarraitzen zuten eta eskubandez hornituak aurkitzen ziren.
- Hego aldeko fatxadak, ibairantz zuzendua, hiru baogune dinteldu-ardatz harlanduz inguratuak zituen. Beheko solairuan bi balkoi zeuden ertzetan, erdiko baogunea leihoa izanik. Lehe-

nengo eta bigarren solairuetako ezkerreko ardatzean leiho bana zegoen eskubandaz hornituak, baita bi leiho simple ere.

- Ipar aldeko fatxadak bederatzi baogune dinteldu zituen, hauetatik zazpi harlanduz inguratuak.
- XVII-XVIII. mendeko etxe eder honetan, honako elementu hauek nabarmentzen ziren: hego aldeko fatxadako balkoiaren harlanduzko zolua, oro har harlanduzko pieza haundiak, baogune desberdinetako burdin forjatuzko eskubandak, teiltategaleko egurrezko gapirioak eta erlaza landuak eta fatxada nagusiko eskubiko eskantzuan aurkitzen den hareharrizko armarraria.

PELLO ARRIETA



Maria Josefa Barrenetxea (1914-1990)



- 1914ko maiatzaren 10ean jaio zen San Lorentzoko Muxillo baserrian.
- Bere aita, Jose "Muxillo" artzaia, oso famatua izan zen herri kirolean.
- 5 anai-arreben artetik 4.a, gaztetan San Lorentzoko eskolan ibili zen.
- Familia Guenaga baserrira aldatu zen. Baserri bietan, gazta oso onak egiten zituzten.
- Pepita deitzen zioten eta oso gazte Eibarko "Eperranera" joan zen lanera.
- 28 urterekin ezkondu zen, Martin Zubiaurrerekin, eta bi seme-alaba izan zituzten. Bata, Enrike, Kutxako zuzendaria eta bestea, Anabel, Madrilko Klinikoan emagina.
- Zapata, abarka eta abar saltzeko denda ireki zuen gaur Oiz-Mendi taberna dagoen lekuan.
- 1957an, negozioz aldatu eta "Bar Txillarre" ipini zuten.
- Sinesmen handikoa eta emakume alaia zen.
- 1990eko abuztuaren 3an hil zen, 76 urte zituela.

JUANITO GOROSTIZA



ARRAQUETA

AZTERKETA ZENTROA

ZIURTAGIRI MEDIKUAK
GIDA KARNETAK ETA ARMA BAIMENAK

Arraqueta kalea, 2 bis. A (Hazienda ondoan eta ONCE parean) - Tel. 700 700 - EIBAR

ORDUTEGIA

· GOIZEZ:

Astelehena eta
asteazkena 10,30-12,30

· ARRATSALDEZ:

Astelehenetik ostiralera
4,30-7,30

MOTZAK

Zikloturisten San Pedrorra VI. igoera

Bihar, hilak 12, Elgoibarko Txirrindularien Lagun Taldeak antolatuta, San Pedrorra VI. Igoera burutuko da. Lasterketa erlojuaren kontrako froga da, zikloturistentzat. Irteera eguerdiko 12etan izango da Plaza Handian eta iritsiera San Pedro gainean minutu batzuk beranduago. Antolatzaileek dei egiten diete herriko zikloturista guztiei lasterketan parte har dezaten.

Futbito Txapelketa zapatuan, hilak 12, hasiko da

Zapatuan, hilak 12, hasiko da orain arte Urasandin jokatzeko Futbito txapelketa. Aurten Olaizaga kirolegian izango da eta antolakuntz lanetan areto futbolekoak dabilta. Esan bezala, zapatuan jokatuko dira lehen partiduak goizeko 9etatik aurrera.

Areto futboleko partidurik ez

Gaur, hilak 11, Areto Futboleko bi taldeek ez dute partidurik jokatu, ez etxean ez kanpoan. Izan ere, aste barruan jokatu zituzten bi taldeek bigarren jardunaldiari zegozkion partiduak, hortaz, hurrengo norgehiagoka datorren ostiralekoa izango da. Talde autonomikoak Moulinex-en aurka jokatu du eta lehen mailakoak Gure Txokoaren kontra.



Arkaitz Mujika:

“Kontua bizikletian disfrutatzea da”

■ **Noiz hasi zinen txirrindularitza?** - Aurten 6. urtea da. Aitxa zikloturista zan eta buelta asko ematera jun izan gera. Gero, Lagun Taldean apuntatu nitzan.


■ **Jubeniletatik afizionatu eta koto jautzia igarri al duzu?** - Bai, igartzen da aldia. Ni baino 10 urte nausixauekin korritzea tokatzen jata. Askok laga eitzen dabe oso zaila dalako zeozer eixia. Gauzia da bizikletian disfrutatzea nahiz eta oso ondo ez ibili. Neretzako txirrindularitza hobby bat da.

■ **Lasterketak ez irabazteak ez al ditu ilusioa kentzen?** - Piska bat bai. Hain gogor entrenatzen dozu gero ezer ez lortzeko... Entrenamenduak oso gogorrak dia, batez ere neguan. Eurixa, txingorra eta hotza eon arren, urten ein bihar zera bizikletian.

■ **Programa zehatz bat jarraitzen duzu?** - Pretenporadan pisizina, Mintxetara, korrika eixera, gimnasiara eta asteburuetan mendira. Tenporadia hasten darian bizikletian hasten naiz.

■ **Zenbat kilometro egun batean?** - 120 km-tik gora egunian kilometro asko eixia da.

■ **Lasterketak martxoan hasten dituzu, ez?** - Bai. Pasa dan denboraldian lasterketa inpor-



tantiena Bergarako premundiala izan zan. 140 kilometro zian eta Espainiako onenak zaozen. Nere asmua bukatzia zan eta lortu naban. Aurten nere kategorixako karreretan parte hartzia da nere asmua.

■ **Urte batzuen buruan aurrera egiterik ez baduzu?** - Ziklismuakin jarraituko dot txirrindulari zuzendari modura. Oin badaoz gazte batzuk zuzendari titulua ateratzen.

■ **Zer jan behar da lasterketa baten aurretik?** - Zeozer arina, digestioa astuna ez izateko. Eta aurreko egunian pasta asko jan.

■ **Pajarrarik izan duzu seula?** - Karreran ez, baina entrenamenduetan bai. Behin aitxakin Ondarrutik bueltan euki naban. Janaririk edo urik ez badozu hartzen gertatzen jatzu.

■ **Txirrindulari bat?** - Olano. Indar haundixa daka bai fisikoki eta moraliki.

■ **Mendiko bizikletan ibiltzen zara?**

- Bai, trabesiak eitzen ditzugu. Karakate aldia politxa da eta Oñatin leku aproposak daoz.

• Adina: 18
 • Bizikleta marka: Zeus
 • Elastikoaren kolorea? Gurea arrosa da
 • Beste kirol bat? Triathloia eta futbola

Mandiola S.L. Egurrak
 Domingo Arrizabalaga
 SALEROSKETA
 BASOEN MOZKETA
 Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42

ELENA
 ileapaindegia
 Depilazio Elektrikoa
 San Franzisko 49-1 tel. 74 11 89

ELGOIBAR F. S.

Areto futboleko talde nagusia Euskal Ligarako igoyeraren bila

Elgoibarko Areto Futboleko talde nagusiak iaz lehen mailan jokatzeko zuen baina ligak jasan duen erremodelazioaren ondoren maila autonomikoa jokatu du. Bigarren taldea edo filiala, berriz, lehen mailan arituko da aurtengoan. Ligaren erremodelazioarekin, hiru kategoriatan egon beharrean lau daude orain.

Dagoeneko bina partidu jokatu dituzte. Talde autonomikoak bat galdu du eta bestea irabazi; lehen mailako taldeak, berriz, biak galdu ditu. 22 jokalarik daude plantilan, horietatik 5ek, lau jokalarik eta atezain batek, liga autonomikoa zein lehen mailan joka dezakete baina 10 partiduren ostean autonomikoa bakarrik aritu ahal izango dira. Dena den, guztiek jokatzeko dute talde gipuzkoarren kontra.

Aurtengo asmoen artean, talde autonomikoa lehen itzuliko play-offerako sailkatzea dago. Lau talderik onenek jokatzeko dute urtarrilean. Irabaziz gero Euskal Ligarako sailkatzea lortuko lukete eta Espainiako Kluben arteko txapelketa jokatzeko moduan egongo liriteke. Bigarren mailako taldea kategoriaz ez jaistearekin konformatuko liritekeela azaldu digu Jose Ramon Uriarte entrenatzaileak.

Elgoibar F.S.

- **Aurrekontua:** 1.100.000
- **Jokalariak:** 22
- Autonomikoa:** 5
- 1. mailan:** 17
- **Entrenatzaileak:** Jose Ramon Uriarte eta Jon Pozuelo
- **Egoiza:** Olaizaga kiroldegia



22 jokalarik eta bi entrenatzaileak daude areto futboleko taldearekin.

Futbola

Haundi 5 - Zorroza 1
Anaitasuna 2 - Elgoibar 2 (1. erreg.)
Ordizia 2 - Elgoibar 2 (Oho. jubenilak)
Bergara 5 - Pedrusko 0 (2. erreg.)
Almen 0 - Elgoibar 1 (2. jubenilak)
Sto. Tomas Lizeoa 3 - Elgoibar 4 (Kad.)
Elgoibar 0 - Antiguoko 5 (Infantilak)
Urre/Zumarraga 7 - Elgoibar 2 (Neskak)

Areto Futbola

Hosfrinor 1 - Elgoibar F.S. 5 (Autonomikoa)
C. Extremeño 4 - Elgoibar F.S. 2 (1. maila)

Pilota (96-09-27)

Ansola/Alzibar (Elgoibar) 22 -
Larrañaga/Gomez (Lazkao) 6 (Seniorrak)
Mendi/Iriarte (Oiartzun) 16 -
Leon/Balzola (Elgoibar) 22 (Jubenilak) (96-10-4)
Esnaola/Luluaga (Tolosa) 88 - Leon
I/Balzola (Elgoibar) 22 (Jubenilak)
Garate/Alberdi 22 (Azkoitia) -
Ansola/Alzibar (Elgoibar) 16 (Seniorrak)

AGENDA

Futbola, Mintxelan Larunbata, 12

09,00 Eibar - Añorga (Kadeteak)
10,45 Elgoibar - Zumaia (2. jub.)
12,30 Elgoibar - Urola (Jubenilak)
14,15 Gazteak - Mutriku (2. erreg.)

17,00 **Haundi** - Alavés
18,45 Pedrusko - Urki (2. erreg.)

Igandea, 13

09,00 Beti Sutan - Sorluze (2. erreg.)
10,45 Elgoibar - Beasain (Kadeteak)
12,30 Eibartarrak - Anaitasuna (Neskak)
16,30 Elgoibar - Aloña Mendi (1. erreg.)
18,15 Gazteak - Lagun Onak (2. jub.)

Eskubaloia, Kiroldegian (Larunbata, 12)

10,30 Elgoibar K.E. - Bidebieta (Jub. neskak)
12,00 Elgoibar K.E. - Don Bosco (Kad. mut.)

Areto Futbola, Kiroldegian (Ostirala, 18)

22,00 Elgoibar F.S. - Gure Txokoa (1. maila)
23,00 Elgoibar F.S. - Moulinex (Autonomikoa)

Pilota, Ikastolako frontoian (Ostirala, 11)

22,00 Lasagabaster/Bengoa (Aretxabaleta) -
Leon I/Balzola (Jubenilak)



DEBA KALEA 12
TEL.: 74 42 23
20870 ELGOIBAR

GOKI ERREFORMAK, S.L.

ERREFORMAK

FATXADAK ETA TEILATUAK

OBRAK OROKORREAN

Maria Urizar

**ileapaindegia
eta solariuma**

Errosario 9-1ezk.
☎ 74 44 89 ELGOIBAR



1997ko GIDA

Gure gidan Elgoibar eta Mendaroko

KOMERTZIALA

telefono komertzial guztiak aterako ditugu.

prestatzen ari

Herritarrentzat gida erabilgarriena,

gara Elgoibar eta

erosoena eta errazena. Guri esker beti egongo zara zure bezeroen eskura, 365

Mendaroko telefono komertzial

egun zabalik, 24 ordu egunean. Zure negozioaren publizitatea egin nahi

guztiekin. 1996ko Gidan agertu

baduzu dei ieizaguzu lehenbailehen eta aukeratu zer den komeni zaizuna:

ez bazinen edo daturen bat oker


izena negritaz ipini, publizitate moduluak,... aukera guztiak zure esku.

bazegoen deitu lehenbailehen

74 37 04

Laiotz literatur aldizkaria kaleratu du Elgoibarko Izarrak


Elgoibarko Izarra Idaz Lehiaketan saritutako lanak biltzen ditu *Laiotz* literatur aldizkariaren 3. zenbakiak. 1995eko Idaz Lehiaketaren X. Prosa Lehiaketan 450 lagunren lanak jaso ziren eta XV. Etxegiña Bertso-paper Lehiaketan 146 lan. Bi ataletan, hiruna kategoriatan egon dira. A mailan (OHoko 7. eta 8. mailakoak) 97 lanen artean Ana Barrenetxearen "Epa lagun!" idazlanak merezi izan du lehen saria eta bigarrena Oihana Martinez. B mailan (ertainetako 1. eta 2. mailak) 233 izan ziren parte-hartzaileak. Jon Garateren "Beldurrezko ipuin bat" izenekoak gailendu zen, kalitate handiko lana izanik. Bigarren saria Josu Iriondok lortu zuen. C mailan (ertainetako 3. eta 4. mailak) Luzia Zubiaurrek irabazi zuen berriz ere txapela, oraingoan "Ispilua" izeneko idazlanarekin. Bigarren saria Ane Guillórentzat izan zen. Bertso-paper lehiaketan A mailan (LHko 5. eta 6. mailak) 105 lan aurkeztu ziren. Txapela Aitor Arrietak jaso zuen eta bigarren Asier Elustondo eta Uxue Alberdi geratu ziren. 28 lan izan



ziren B mailan (OHoko 7. eta 8. mailak) eta hauen artean Iban Herreroren bertsoak izan ziren onenak. Sare Gurrutxagari bigarren saria eman zitzaion. Azkenik, C mailan (14 eta 18 urte bitartekoak), Amaia Astorkia eta Lore Agirrezaldegik irabazi zuten txapela eta Jon Garate Goenagak bigarren saria. Aldizkaria ikastetxeetan banatu da eta Elgoibarko Izarraren egoitzan doan eskura daiteke.

Jon Suarez elgoibartarrak liburu bat argitaratu du


Kaixo Mirna izeneko liburua argitaratu berri du Jon Suarez Barrutia elgoibartarrak. Gasteizen bizi da duela 10 urte ingururik eta irakaslea da lanbidez. *Kaixo Mirna* 10 urtetik gorako gaztetxoei zuzenduta dago. Gutunez osaturiko liburu honetan mutiko batek Sarajevo-n bizi den eta ezagutzen ez duen Mirna delako bati idazten dizkio eskutitzak. Joanes Koldobika da protagonista eta Berta izeneko herrian bizi da. Berta deskribatzen duenean, idazlea Elgoibarri buzu hitzegiten ari dela esan daiteke. Haur literaturan zenbait lan euskaratu ditu eta *Kaixo Mirna* da bere lehen sormen-lana.



Esozia auzoa z/g - ☎ 75 10 01 - SORALUZE

ESOZIA JATETXEA

*Ospakizun berezietarako toki aproposena.
Zugandik oso gertu!*



JOSE IGNACIA LEÓN:

"Eguzkia ateratzen denetik sartu arte egoten gara mahatsa jasotzen"

20 urteko elgoibartar gazte honek hainbat esperientzia izan ditu lan munduan. Izan ere, oraindik ikasten dagoen arren, ahal duen guztietan diru apur bat irabazteko lanerako prest egoten da. Aurten ekingo dio Donostian Turismoko hirugarren eta azken urteari. Eta udan, Frantziako kanping batean izan da, animatzaile lanean.

- Nolatan Frantzia?

- Unibertsitatean aukera ematen dizute Frantziara joateko praktikak egitera. Frantziako Turismo bulegora bidali nuen nire curriculum-a eta nik aukeratutako hiru tokietariko batetik deitu ninduten. Dax hiritik gertu dagoen kanping batetik.

- Zenbat denbora izan zinen?

- Bost aste.

- Eta zein zen zure lana?

- Hasiera batean edozein gauzatan laguntzea. Baina, azkenean suspertzaile lanetan ibili nintzen, kanping-ean zegoen jendea animatzen, haur eta nagusiekin hitzegiten, ekintza desberdinak antolatzen...

- Frantsesa ba al dakizu?

- Saiatzen naiz. Egia esan, eskolan frantsesa irakasten digute eta udara osoan, bost astetan zehar etengabean frantsesetik hitzegiten geundenez... azkenean dexente ikasten da.

- Zein zen zure ordutegia?

- Goizeko 9ak aldera igerilekua garbitzen genuen, instalakuntzak txukundu, umeentzat jolasak prestatu... eta gauean karaokea... denetik egoten zen.



Jose Ignacio frantziako kanping baten egon zen udan.

- Zuek ere kanping batean egiten al zenuten lo?

- Ez, bakoitzarentzat karabana bat zegoen. Lo bertan egiten genuen; siesta ere bai ahal genuenean... Eta jatorduak kanping-eko nagusiekin egiten genituen. Oso gustura egon nintzen.

- Penaz bueltatzeko, beraz.

- Bai, ze horrenbeste denbora jende berarekin egon eta gero harreman oso estuak egiten dira eta beti kostatzen zaizu hura uztea.

- Bendimian ere ibili izan zara.

- Bai, deitzen nauten guztietan joaten naiz. Burgosen familia daukat eta bertan jendea behar izaten dute

mahatsa jasotzeko. Lan gogorra da, eguzkia ateratzen denetik sartu arte egoten gara lanean, mahatsa jaso eta jaso. Baina, tira, nahiko ondo ordaintzen dute.

- Eta gero, dirua aurreztu egiten al duzu?

- Bai, urtean zehar izaten ditudan gastuak ordaintzeko erabiltzen dut. Eskolan bidaia bat dugula edo beste edozer dela, gurasoei beti eskatzen egon gabe nahiago dut nik

neuk irabazitakoa edukitzea.

- Lana eta ikasketak konpatibleak al dira?

- Nik uste dut baietz. Urtean zehar, hiru lagunen artean, txandaka astebukaeretan Mintxetako mantentzen arduratzen gara. Zerbait ordaintzen digute, gure gastuak aurrera eramateko behintzat.

- Etxean irakatsi dizuten filosofia al da?

- Bai. Gurasoek ahal duten guztia ematen dizute baina hortik aurrera, bidaiak edo bestelako bizioak zuek ordaintzerik baduzu, hobe. Sekula ez dator gaizki lanean ibiltzen ikastea.

- Kontabilitate

- Lan

- Fiskal



URKIDI
AHOLKULARITZA

ASEGUROAK

Kalamua 12
ELGOIBAR
Tel-Fax:
74 18 91

TXURI BELTZ

Taberna

San Franzisko 38

Salerosketak

- ❖ **ERREPIDEKO BIZIKLETA** bat salgai. Kuadroaren tamaina 50. Campagnolo Mirage. 105 shimano kanbioak. 2 urte. 65.000pta. ☎ **75 51 75 Javi**
- ❖ **LIBURU** hauek erosiko nituzke: "Intermediate Matters" (Ed-Longman), "The Heinemann English Grammar" (Ed. Heinemann) eta "Dublin People" M. Binch (Ed. Oxford. Bookworms kolekzioa). ☎ **74 07 74 Igor** (gauzez deitu)
- ❖ **SEAT PANDA SS-E** salgai. Oso merke. ☎ **75 60 53**
- ❖ "La Unión" elkarteko bazkide akzioa salgai. ☎ **74 05 05**
- ❖ **Golf GTI** autoa saltzen dut, SS-AS. Oso egoera onean. ☎ **17 44 33**
- ❖ **BIBOLIN BAT** saltzen dut oso egoera onean. ☎ **74 26 35** Manuela
- ❖ **REM/IEEko** lehen mailako **LIBURUAK** erosiko nituzke. ☎ **74 12 91**
- ❖ **BX-RE AUTOA** saltzen dut. Egoera onean. ☎ **74 08 85**
- ❖ **LOKAL BAT** saldu edo alokatzen dut Urasandi kaleko 7an. ☎ **74 18 94/27 78 08** Angel
- ❖ Auto bat daukat saltzeko. **TALBOT SOLARA**. Egoera eta prezio onean. ☎ **74 30 02** (gauzez)
- ❖ **ILARAKO MONOPATINAK** saltzen ditut, lau erroberakoak. ☎ **74 20 95** Iban
- ❖ **AUTO TELEGITATUA** saltzen dut bateriarekin. Egoera onean. ☎ **74 22 75**
- ❖ **TRABESIAKO ESKIAK** saltzen ditut. Mendiko materiala ere bai: amesak, sokak, katu hankak. ☎ **74 40 62** Agustin
- ❖ **LOGELA OSOA** daukat saltzeko. Baita sarrerarako takiloia ere. ☎ **74 24 57**
- ❖ **ABDOMINALAK LANTZEKO** "Boumerang" taula eta gomazko "Beuchat-Marlin" urpeko arrantza fusila ditut salgai. Berri-berriak. ☎ **74 36 36**
- ❖ **MOBILETE** Coma Harvard motor beltza saltzen dut, berri-berria. 50.000 pta. ☎ **75 10 01** Jabi
- ❖ **SEAT IBIZA SS-AG** saltzen dut, oso egoera onean. Beti egon da garajea. ☎ **74 10 59**

Lana

- ❖ Sukaldaria behar da jabetxe batean lan egiteko. Interesatuak Posta kutxa 48 zuzenbidera bidali sobrearen azalean "Sukaldari" erreferentzia zehaztuz.
- ❖ Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke. ☎ **74 04 75**
- ❖ Konfidantzako familia batek au-pair bat behar du Northamptonen (Ingalaterra) irailetik aurrera. ☎ **74 15 73**
- ❖ 17 urteko neskek pertsona nagusiak zainduko lituzke. Eguzte edo gauzez. Etxeko lanak eta jatorduak ere egiten ditut. Esperientziarekin. ☎ **74 36 38**
- ❖ Austriako familia batek Au-pair bat behar du 9 hilabeterako. Aleman piska bat jakin beharko luke. ☎ **19 10 96** Edurne
- ❖ Emakume batek nagusiak zainduko lituzke. Esperientzia daukat. ☎ **75 62 18**
- ❖ Klinikako laguntzaile eta Gutxitu Psikikoen Hezitzaile tituluak daukat eta lan egingo nuke. ☎ **74 34 68**
- ❖ Neska euskaldunak urte gutzian zehar gaixoak edo umeak zaindu eta etxeko lanak egingo lituzke. Autoa dut. ☎ **75 61 79**

Etxebizitzak

- ❖ Beste batzuekin **KONPARTITZEKO** etxe bila nabil. ☎ **74 09 44**
- ❖ **Pisua SALGAI SANTA ANA** kalean. 3 logela, sukaldia, jangela, 2 komun eta ganbara. ☎ **86 12 47 - 74 35 86**
- ❖ **Pisu bat ALOKATU** nahi dut Elgoibarren. ☎ **45 35 59**
- ❖ **Etxebizitza SALTZEN DA SAN BARTOLOME** kalean. Sukaldia, bi komun, bi logela eta egongela-logela ditu. Jantzita eta berritua. ☎ **74 04 99**
- ❖ **Etxe bat saltzen da SANTA ANA** kalean. Etxe handia eta prezio onean. ☎ **74 10 53**
- ❖ Beste batzuekin bizi izateko **PISU BILA** nabil Mendaron edo Elgoibarren. ☎ **61 96 60** Ana
- ❖ **PISUA SALGAI** daukat LEKEITION. Handia eta itsasora begira. ☎ **74 32 48**
- ❖ **Jantzitako pisua** daukat alokatzeko P. Muguruzan. ☎ **74 04 75**
- ❖ **Elgetan BASERRI BAT** salgai. Lasai deitu. ☎ **12 09 67 / 12 71 10**

Partikularrak

- ❖ Marrazketa industrial eta didriko partikularrak ematen ditut. ☎ **74 43 98** Iñaki
- ❖ Bi neska gazte gara eta frantsesa irakatsiko digun norbait behar dugu. Oinarritzko maila. ☎ **74 15 69** (Miren)
- ❖ **Lehen Hezkuntza, DBH** lehen zikloko eta ingeleseko partikularrak ematen ditut. ☎ **74 28 02**
- ❖ **Hezkuntza Zientzietan** lizentziatuak (Pedagogia) OHO-EGB, DBH-ESO, REM eta LOGSEKO klase partikularrak ematen ditu euskaraz eta gaztelaniaz. ☎ **74 39 24** (Maite)
- ❖ **Fisika, Kimika eta Matematika** partikularrak ematen ditut. Maila guztiak. ☎ **74 43 98/10 27 82** Marian

Garajeak

- ❖ Auto txiki batentzako marradun garajea alokatzen dut. Batzoki azpian. ☎ **74 01 13**
- ❖ **Garaje bat saltzen dut Arregitorre** leian. ☎ **74 30 81**
- ❖ **Marradun garaje bat** alokatzen dut pista beltzean. ☎ **74 21 64**
- ❖ **Garaje itxi bat salgai Arregitorren**. ☎ **74 12 53** (Pilar)
- ❖ **Garaje itxi bat saltzen dut Santa Anan**. ☎ **74 21 21**
- ❖ **Marradun garaje bat** alokatzen da pista beltzean. ☎ **74 01 77**
- ❖ **Garaje bat saltzen da King-Kongen**. ☎ **76 17 95**

Agurrak

- ❖ Zorionak **amari** urriaren 10ean urteak bete dituelako. Ion eta Anderren partez musu bat.
- ❖ **Zorionak Amaia!** Ea datorren urtean ere halako ospakizuna egiteko aukera daukagun. Benetan ondo pasa genuen, ezta?
- ❖ **Jokin Garitanorentzat** zorionak jubenilen taldean debutatzeagatik eta partidu bikaina egiteagatik.
- ❖ **Urriaren 10ean** 8 urte bete zituen **Itsasori** zorionak eta musu haundi bat aitatxo, amatxo eta Naiararen partez.

IRAILA

Hildakoak

- ▶ Josefa Torregarai Furundarena, 77 urte (Irailak 6)
- ▶ Jesus M. Fernández Quintas, 32 urte (Irailak 8)
- ▶ Gabino Elorza Garate, 67 urte (Irailak 11)
- ▶ Angel Canabal Fernández de Retana, 61 urte (Irailak 19)
- ▶ Eloy García Marín, 67 urte (Irailak 20)

Ezkondutakoak

- Mario Iranzo Arenas eta Alicia Lobete Sanz (Irailak 7)
- Jose Luis Alonso Alberdi eta M. Pilar Cruz Godoy (Irailak 7)
- Esteban Gabiola Colina eta Sonia Hernández Martínez (Irailak 21)
- Alberto Iriondo González eta Ana Fernández Martínez (irailak 21)

Jaiotakoak

- Maria Badiola Alvarez (Irailak 1)
- Aitor Cuende Maeso (Irailak 1)
- Jon Ibarluzea Olaizola (Irailak 4)
- Rocio Ortega Torres (Irailak 7)
- Iker Hernández Acuña (Irailak 8)
- Maria Isabel Leal Rico (Irailak 10)
- Mikel Agirrebeña Iturbe (Irailak 19)
- Andrea Pérez Huidobro (Irailak 26)

- ❖ Zorionak **Kontxi Cid-i** urriaren 3an 41 urte bete zituelako. David, Mikel eta Emiliano partez.
- ❖ Zorionak **Itsaso Alguacili** urriaren 10ean 8 urte egin zituelako. Sara Gurrutxaga, Eider Perez, Ane Arrillaga eta Ainhoa Mendibilen partez.
- ❖ Zorionak **Borja eta Virginia Barriadari** bere guraso, ahizpa eta izebaren partez.
- ❖ Zorionak **Amaia Polori** irailaren 26an 12 urte bete zituelako. Leire eta Olatzen partez.
- ❖ Irailaren 27an 8 urte bete zituen **Ane Odriri** zorionak Ane Arrillaga, Eider Perez, Sara Gurrutxaga eta Ainhoa Mendibilen partez.

11 OSTIRALA

19,30 KOMIKI EROTIKOEN ERAKUSKETA

Antolatzailea: Kokoe Komiki elkarte
Hilaren 21era arte

22,30 ZINEA

“El hombre deseado”
Kokoek antolatutako ziklo erotikoaren barruan

12 LARUNBATA

12,00 SAN VIATOR JAIA

Meza, Itxaropena abesbatzaren kontzertua eta luntxa
✓ Pilar ikastetxean

12,00 SAN PEDRORA VI. IGOERA

✓ Irteera Plaza Handitik
Antolatzailea: Lagun Taldea

16,30-19,30-22,15 ZINEA

“Misión imposible”

13 IGANDEA

12,30 BANDAREN KONTZERTUA

✓ Herriko Antzokian

16,30-19,30-22,15 ZINEA

“Misión imposible”

14 ASTELEHENA

22,15 ZINEA

“Misión imposible”

15 ASTEARTEA

22,00 ZINEA

“Misión imposible”

16 ASTEAZKENA

15,00 OLEO IKASTAROA

Antolatzailea: Egur Arte Tailerra

18 OSTIRALA

22,15 ZINEA

“G punto caliente” eta “El hombre que mira”

Kokoek antolatutako ziklo erotikoaren barruan
✓ Herriko Antzokian

txandak

FARMAZIAK:

DATA	EGUNEZ	GAUEZ
12, larunbata:	Ormazabal	Zabaleta
13, igandea:	Ormazabal	Zabaleta
14, astelehena:	Yudego	Escala
15, asteartea:	Yudego	Escalaa
16, asteazkena:	Yudego	Escala
17, osteguna:	Yudego	Escala
18, ostirala:	Bidasolo	Anduaga

OKINDEGIA:

12, larunbata: ZABALETA
13, igandea: DONA MERCEDES

ZineA



Misión imposible

Zuzendaria: Brian de Palma
Antzezleak: Tom Cruise, Jon Voight, Henry Czerny
Akziozko filme honetako protagonistak, Tom Cruisek, munduko agente sekretuen izenak dituen zerrenda bat topatu behar du. Zerrenda eskuratzeaz dauden, ihesi atera beharko dira lekutik. Istilu odoltsuen ondoren, lapurtu behar zuten zerrenda faltsua dela jakiten dute eta hortaz, euren artean salatari bat dagoela pentsatzen dute.



TINDATEGIA



Foruen Enparantza 4
Tel. 74 00 91 - ELGOIBAR



OIERKI

IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

☎ (943) 10 35 15 ● ☎ ABERIAK (943) 10 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR

JUBILATUEN
URRIA - AZAROA 96
OCTUBRE - NOVIEMBRE
KANPAINA



**Paregabeko
prezioak
dauzkagu.
Zatoz ikustera.**

BETAURREKOAK KRISTALEKIN
7.500

BETAURREKO BIFOKALAK
10.800


LENTE PROGRESIBOAK
17.500



San Frantzisko, 21 - ELGOIBAR
Tel. 74 03 59 - Faxa: 74 06 16



JOSE MARI ARANZAMENDI "KATEI"
Edari Banatzailea



GUÑELES



SANTA ANA, 41 - ☎ 74 10 41 - 74 11 32

Sukalde eta bainurako altzariak

Movellán

P. M. Urruzuno, 10
Tel. (943) 74 37 66
20870 ELGOIBAR

**Zure neurrira egindako proiektuak
estilo guztietan
Klasikoak - Modernoak - Rustikoak**

Behar duzun soluzioa daukagu

Kreatibitatean

Kalitatean

Akabatuetan

Neurrietan

Koloreetan

Konposizioetan

Ireki berria!

